




EKONOMIA SENTIMENDUA

Europako sentimendu ekonomikoaren susperraldia aurrera doa

SENTIMENDU EKONOMIKOA. EUROGUNEA


IRAILEKO DATUA
91,1




Irailean, Euroguneko konfiantza eta sentimendu ekonomikoko indizeak, Europako Batzordeak egiten duenak, beste aurrerapauso bat eman zuten suspertzeko prozesuan, eta 91,1eko balioa izan zuten, oraindik azken hogeitazko batez bestekoaren azpitik, 100 balioa hartzen baitu, baina 3,6 puntu gehiago abuztuko datua baino. Adierazlearen osagai guztien artean, eraikuntza baino ez dago bere batez besteko balioaren gainetik, baina kontsumitzailearen konfiantza eta

txikizkako merkataritza hazkunde eremura hurbiltzen ari dira. Zailtasunak, beraz, industrian eta, bereziki, zerbitzuetan daude. Bi sektoreetan hobekuntza nabari da aurreko hilabeteekin alderatuta, baina oraindik ibilbide luzea dute beren batez besteko balioei berriro heltzeko. Sentimendu ekonomikoarekin batera, enpleguaren igurikimeneen indizeak ere bilakaera ona izan du (91,8), baina beste hileko batzuk beharko ditu batez besteko historikoa lortzeko.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ALEMANIA




SENTIMENDU EKONOMIKOA. FRANTZIA




Bilakaera antzekoa da Euroguneko herrialdeen artean, baina nabarmentzekoa da Alemanian eta Frantzian. Lehen herrialdean, iraileko datua 95,5 izan zen, eraikuntza eta txikizkako merkataritza hedapen eremuan daudelarik. Bertako industria nabarmen hobetu da, baina zerbitzuek moteltzea iragarri dute abuztuarekin alderatuta. Frantzia, berriz, 96,6an dago jadanik, iraileko hobekuntza nabarmenari esker. Txikizkako merkataritza bakarrik dago eremu positiboan, baina zerbitzuak azkar doaz beren batez besteko baliorantz. Industria eta eraikuntza gelditu egin dira hilabete honetan.

Espainiaren kasua gainerako ekonomia handietatik bereizten da. Izan ere, 90 puntuetan erresistentzia aurkitu omen du eta uztailetik aurrera balio horretan jarraitzen du, aldaketa gutxirekin. Industriak hobera egiten jarraitzen du pixkanaka, baina gainerako atalak, zerbitzuak bereziki, oso urrun daude batez besteko balioetatik. Italiak, aldiz, nabarmen egin du gora 89,0ra arte, martxoko datua gaindituta. Eraikuntza eta kontsumitzailearen konfiantza suspertu egin dira, eta txikizkako merkataritza suspertzeaz dago. Zailtasunak daude industrian eta zerbitzuetan, baina azkar hobetzen ari dira.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ITALIA




SENTIMENDU EKONOMIKOA. ESPAINIA



Eurogunetik kanpo, badirudi Erresuma Batuak atzean utzi dituela zalantzak eta pixkanaka hazkunde eremurantz doala, irailean 83,0 puntu lortuta, datu nahiko baxua oraindik. Eskura ditugun datu guztiek erakusten dute oso alde handiak daudela egungo balioaren eta batez besteko historikoaren artean. Bereziki garrantzitsua da zerbitzuek eta txikizkako merkataritzak erakusten duten urruntzea, baina industria eta kontsumitzailearen konfiantza ere oso posizio negatiboetan daude.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ERRESUMA BATUA



Iturria: Europako Batzordea.